

"PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE


DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

RONCESVALLES

Pamplona - marzo - 1966

RONCESVALLES

Xabiererako ibillaldia



Negu azkenean Naparroko bide guziak Xabier aldera erematen dute. Oinez eta erroten gainean, ikus-tekoa da ango gizon alde! Zenbat? Ogei milla? Ogei ta bost milla? Urtetik urtera ederrago da, Naparroak izan duen semerik oberenaren etxera bidean sortua den ibil keta au.

INGLATERRAKO ELIZAREN ARTZAIBURU ERROMAN



Inglaterako Elizaren Artzaiburu ta Canterburyko Artxapezpiku dan Michael Ramsey Jauna Epaillaren 23 egunean Erromara eldu zan Eliza Katolikoaren Burua dan gure Aita Saindua Paulo Seigarrenarekin el-karrikin mintzatzeko. Kristau-Eli-zen Batasunaren aldeko lenbiziko urratsa emana dago.

Inglaterako Eliz-buru ospetsua-ren bidaya dela ta, gure Aita San-tuaren ezpainetatik eldu zaizkigu, martxoaren 23'an esandako itz auek:

"Gure gogoa litzake, etxe ontan anak jartzean, ez etxe arrotz batean bazina bezala; baizik eta, gora-bera guzien artetik zure izan duzun etxean gertatzea.

Pozik eta pozik ikusten ari naiz atari oiek, eta denbora berean nere biotza, zuri idekitzean.

Yondoni Pauloren itzak gogora ekarriz gertaera ontan, atsegin zaigu eta ohoragarri ez arrotz eta kanpotar bezala zu etxean artzea; eta bai gure erritar, santu eta, Jaungoikoaren etxe bezala.

Zeru goyenetik Gregorio Aundi eta Agustin Sainduak begiraten gaituzte eta bedeinkatzen".

Xabierko Gaztelu ondoan eta Leyre azpian bildu dira, aurten ere, Naparroko mutillak. Eginkizun bat gogoan: Xabierko ibilkari aundiaren bide luzeari, beren ibilketa ekartzeko asmo jatorra. Gorputzez lur jo-ta ere, Txina zaharra begien aurrean zuela itzali zen mutil naparrak ez baizuen bere biotz barneko su-garretan mugarik ezagutu.

Elur-kopeta zuria erakusten duela, iduri du mundu zabaleko erri guzientzat elkartasun muga-gabekoaren amets argi bat balukela gure Leyre mendiak.

Argi eder orren dirdira eltzen da Xabierrek ainbeste maite izan zi-tuen eguzkialdeko Txina aundi, Japon jakintsu eta, India den gosetegira. Oiu ori entzungo zen elkar maitatzeko, laguntzeko eta onartzeko biotz on bat prest legoken edozein txokotan. Muga gabeko elkartasunaren deia.



ESPAÑA ALDEAN

Ilabete ontako lau berri auek nari dira.

Alemaniko Erresuma edo Erri Arrotzetako Ministroa dan Schroeder Jauna Madriden egon da. Ikus-taldi onek badu zer ikusi Europako Ekonomizko taldetan Españaiko sar-rerakin.

Palomares, Almeriako aldean, ixiltzen asia da. Izenak dion usote-gi aundirik ba ote da? Oraikoan aski istillu sortua zioten beste bur-nizko uso batzuk: elkar jo ta, ato-mika arrautzeak «Usotegian» ero-ri...! Alare, umerik egin gabe bil-du dituzte; eta pozik!!

Burgosen, Ayoluengotik urbi-lean, Tozo errian, beste petroleo-dun lurralde bat billatu dute.

Bigarren «mail-goratzeko saioa» (Plan de Desarrollo)ren deia. Len-goia uzten saritzen asi emen da. Orain arte egiñak ekarri du: Bizimodu ohea, eta langillen sarien goratzea. Bere aundimiñak ere izan ditu: Nekazarien iges egitea, gauza guzien izar-jotzea, beharrezkoen-atatik asita, eta langill-ikasien eskas-te aundia. Bizia garestitzeari muga jartzekoak dira orain. Nekazaritza-ko gauzetan bete-betean sartuko omen dira bigarren sail ontan, in-du-stri-kontuan egiña duten bezala.

Cuatro noticias han atraído la atención de los españoles:

La visita a Madrid del Ministro de Asuntos Exteriores de Alemania, visita que está relacionada con la presencia de nuestra Patria en el conjunto económico europeo.

La seguridad de que ha desaparecido toda alarma en el pueblo de Palomares (Almería) después del accidente de un avión americano que transportaba bombas nucleares.

La aparición de otro yacimiento de petróleo en el Valle de Tozo cerca de Ayolengo (Burgos).

Y el anuncio de un segundo Plan de Desarrollo Económico.

El actual Plan de Desarrollo, ya en fase muy adelantada de realización, ha producido en conjunto una elevación del nivel de vida, una subida de los salarios reales y una disminución de la población agraria. Sin embargo también aparecen algunos obstáculos como es la elevación del costo de vida (al parecer ya contenida por el Gobierno) y la escasez de mano de obra especializada. Parece ser que el próximo Plan de Desarrollo dedicará una atención especial a la agricultura así como el actual ha puesto su atención en la industria y en los servicios.



Munduko berriak

INDONESIA TA GHANA ALDE-KO NASKETAK

Indonesiako nasketak gorrien kontrakoa dirudi. Nola nahi dela, IparAmeriketako ez dizkio gainetik begiak kentzen. Su bizian den Vietnam ori gertuegi dauka.

Indonesia bere buruaren jabe da. 1949 arte holandarren esku egona zen. Lau aldiz España bezalatsu da berez. Urarte —isla— askok egiten dute ango lurraldea; aipatuena Sumatra ta Java. Izakera ta izkuntzaz malaitarrak, oriak dira. Eun milion biztanle ditu, eta sinestez guztiz geienak musulmanak. Jo dai-ke iru bat milion kristau izango direla denak ere.

Beste nahasmenduak, Afrika itzal bazter aldetik, Ghanan izan dira. 1960 arte inglesena izana, geroztik beren esku geldituak dira. España-iren erditsu bezala da, eta zazpi milion arima bizi dira. Oietatik, gehienak jentillak eta Mahomaren taldekoak dira. Nkrumah lendakari zena garaitu ta bota duen alderdiak txuritakoa dirudi.

IZARBIDETAKO AURRERA-MENDUAK

Izarbidetako gauzetan bi gerta-kari: rusoak Venus eta Illargia jo dute. Amerikanoak, berriz, bi zirta aidean elgarretaratu dituzte, eta itsasi. Joku onek asko esan nahi du, gizona ilargira biartzeko lanbidean. Iru urte baño len juan gogo dute.

INDIAKO GOSATEA DELA-TA DIRU BILKETA

Aita Sainduak, India'ko gosatea dela-ta, laguntza eskatu dio mundu guziari. Keralako alderdia izan behar du, batez ere, ikaragarri den jan-eskasia. Kristau erriak ongi erantzun dio Aita Sanduari.

Desde la aparición de nuestro número anterior han ocurrido en el mundo algunas cosas importantes: Las revoluciones en los estados de Indonesia y Ghana, las nuevas aventuras espaciales la campaña contra el hambre en favor de la India.

La revolución en Indonesia parece que tiene un carácter anticomunista. Los EE. UU. están muy atentos a la marcha de aquel país por su cercanía con el Vietnam donde la guerra está todavía encendida.

Indonesia es una república independiente desde el año 1949 ya que antes era una colonia holandesa. Su superficie es cuatro veces la superficie de España. Está distribuida en muchísimas islas de las cuales las más grandes son Sumatra y Java. La lengua y la raza son de origen malayo. Su población cercana a los 100 millones de habitantes es en su mayoría musulmana aunque existen más de 3 millones de cristianos.

La otra revolución tuvo lugar en la república de Ghana, en Africa, situado en la costa atlántica. También es país independiente desde 1960 y anteriormente colonia inglesa. Su superficie es la mitad que la de España con una población de 7 millones de habitantes, principalmente paganos y mahometanos. Aquí también el movimiento político ocurrido que depuso al Presidente Nkrumah parece tener un carácter anticomunista.

En el orden espacial tuvo una gran importancia la llegada de un proyectil soviético a Venus y de otro ingenio ruso a la luna. Pero aún más importante fue el ensamble de dos vehículos espaciales americanos. Este último episodio acelerará la llegada del hombre a la luna que se programa para antes de 3 años.

El Papa inicia una campaña en todo el mundo para ayudar a la India especialmente a la provincia de Kerala que necesita la urgente llegada de alimentos. El mundo cristiano obedece la llamada del Papa.

† Jose Maria Albareda il da



Joan den Epaillaren 27ean, Madriden, ustegabeko biotz-aunditsu miñ batez, Naparroako Ikastetxe Nagusiaren Agintaria Don Jose Maria Albareda Jaun Agurgarria il zan. 64 urte zituela, Naparroako Diputazioaren "Principe de Viana" Ikasgoko "Euskeraren aldeko Saillak" parte artzen du biotzetik Naparroako Unibersidadeko Erakasle-Biltzarraren dolumi-ñean, eta otoitzak egiten ditu Jaungoikoari Albareda Jaun Agurgarriaren alde. Goian bego!



EUSKE- RAREN ALDEKO SAILLA'REN BERRIAK

Datorren Maiatzaren amabosgarren egunean (igandea), Igantzin, Eliz-Bezperen ordorean, bertako euskaldun aurrei Premioen Banaketa izanen da. Euntamar muttiko eta neskatto premiatsuak izan dira eta oien ohorez «Principe de Viana»-k Euskal-Besta ederra antolatuko du. Aur bakoitzak «Caja de Ahorros»-ren Kartilla (berreun pezeta dituen), agerkaia edo diploma, eta gozokiak artuko ditu.

Egun berean Euskal-Besta ornituzeko, dantzariak, txistulariak, Peru Txiki euskal kontuesale famatua eta abar ariko dira. Gañera Nafarroko Bertsolari Alderdiko Txapelketa (Bidasoa, Baztan, Ultzama, Bertizara eta Doneztebeko inguruetak) bertsolariak agertuko dira izanen da.

OARRA

Nafarroko Diputazioaren «Principe de Viana» izenezko aldizkariaren geigarri dan illeroko au napar-euskaldunci bialtzeko soil-soilki argitaratzen da, gure euskaldun menditarrak euskeraz irakurritzen trebe eta oitu ditezten eta bide batez beren jatorrizko mintzaeraz izkribitzen edo idazten ikasi dezaten. Ala ere gure anaiak diran Euskalerriko Diputazioei, baita Apezgaitegi, Albistari, Aldizkari, Eguneroko eta Irratiei ere, ala nola Bazkun eta Elkargo batzuei ere bialtzen zaizkie. Onelaxe Euskalerriko Elkargo eta Bazkunde nai duten guziei eskaria egiten baldin badigute bialduko dizkiegu

LANZ'KO IÑAUTEA

Juandako Otsaillaren 21 eta 22 egunetan Lanzko errian ain aipatutako iñauteriak izan ziran. Gure aintzin-aintzinen oitueraz zarrak

agertzen dizkigun iñaute onek nola iraun duen orain artio adieraztea oso zalla da. Egitan dakiguna da Euskalerrira Kristautzaren eto-

rrera baño lehenagokoa dala. Azkeneko amar urte auetan bazartzen asia zan, baño Nafarroako Diputazioari eskerrak, eta Karo Baroja anaien alegiñak berpizte egokia eman zaioete.

Iñaute-jai ontan parte artzen duten giza-irudiak auek dira: **Miel Otxin, Ziripote, Zaldiko, Ferratzaileak, eta Txatxuak.** Denak Ziripote ez besterik txistu-soiñuan dantzaz eta yauzika ibiltzen dira.

Miel Otxin illunpeko gogogaiztoaren ordezkaria da erriarentzako eta il beharra da. Luzeraz iru metro baditu gizaundi-irudi onek eta mutil batek bere buru gañean darama dantzaeraziz.

Ziripote gizontzar lodi eta arloeta da, belarrez betetako zakuz estalia, makil luze bat eskuan duela ixilik juaten dana. **Ziripotek** zer nai duen erran jakiteko egiñahalak egin arren iñork ezdaki.

Bere aldamenen **Zaldiko** dijoa irrintzizka eta ostikoz, **Ziripote** noizean bein joaz eta lurreraño eroriaziz.

Zaldiko onen ondoan iru-lau **Ferratzaileak** dijoaz erriko kalean zer ibilketa bakoitzean bi aldiz **Zaldikoari** ferratzen diralarik.

Multzoaren aurrean dijoazen moztarok **Txatxuak** dira. Auek dira **Miel Otxin** gizatzar aundia arrapatu zutenak, eta garaipen-garraxiak botatzen dituzte. Iñauteriaren astearteko arratsaldean **Txatxuek Miel Otxin** tiroka iltzen dute erriko plazan. lur gañean etzanik dagolarik erretzen dute eta errautsen inguruan dantzatzan dira beren poza agertuaz gogo gaiztoarengandik urte guziraongi atera diralakoz. Onelaxe bukatzen da Lanzko Iñautea.

Gure Euskalerraren oitueraz zarrerenetako dan Lanzko Iñaute au benetan ikusgarria da.



Iñautearen moztarok-taldea (multzoa) Lanzko kalean zear ibilketan.

GITARRA DELA TA...

Gitarra gora ta gitarra bera, istillu gorria sortua dugu Euskalerrian. Itxura gabeko burrukal

Donostian kantari gazte batzuk "Ye-ye" eta beste ritmo berri batzuk egin dituztelako beren oiak zeruan jarri dituztenak izan dira, gure artean. Ez da arritzekoa. Eskualduna, berez, asarre billatzallea da; eztabaida maite du ta, elkar larutzea ere bai.

Besteak beste, oraikoan gitarrarenkin dute, olako oiek beren koropilorik aundiena. Aditzekoak dira ilabete pare ontan esan diranak!

Gitarra, beste gure arteko soiñuak bezala, nunbaitik artua dugu eskualdunok. Baño, ez da gaurko gauza. Gaur baño gitarra geiago zen gure erritan, duela berrogeitamar urte.

Nere aitaren gazte denboran erri-tako mutilek bazituzten beren gitarra jotzaleak. Oraindik bizi dira batzuk, naiz ez gitarrarik jo. Aitonak zionez, berriz, auzo-erritako mutillak edozein jayetan izaten zituzten elkarren arteko gora-berak. An esaten ziranak, gitarra soiñuarekin lagunduz, kantuz botatzen ziren. Egia da etzirela beti osorik itzultzen gitarrak beren etxetara; eta bein baño geiagotan odola egin zuten norbaiten buruan.

Larogei urtez gorako gizon bati galdetu diot istillu onen berri. Bere gazte denboran Bizkayko mintan ibilia bai da, "pandero" ta gitarra izaten omen zituzten igandetan. Mutillak bost xentimo ordaintzen zuten an ibiltzeko, eta emakumeak ezer ez.

Gaurkoa da Euskalerrian gitarra? Gaurkoa da Iparragirre ta "Gernikako Arbola"? Ori ta beste gauz asko ekartzen dizkigu gogora gitarra soiñuak.

Eta joera berria izanik ere, berdin luke. Gure aurrekoak, mendialde guzitako aizeak artuz bizitu dira; eta beren denboran aize oiek ez diote galterik egin. Eta bai mesede. Berritzen ez denarendako, eriotza dago. Orañ baño len ere berrituz bizi izan da Euskalerria.

SAGI

ITZ LABURREZ

Otsaillaren erdi aldera atera zen gure aldizkari txoa; esan ginezake jayo dela gure aldizkaria, naiz ez den oraindik batayatia...

Ur onak balitu gaixiak!

* * *

«Zeruko Argiak» eman digu bere ongi-etorria, atal-aurrean emanez sortu berriaren argazki ederra. Anai zaharrenaren arrera beroa atsegin dakio aurtxoari.

* * *

Nafarroko eskualdunek erreix arteko eskuaran egina dela ta, bide ortan jarraitzeko agertzer eman digute. Ori nahi ginuke.

* * *

Iturmendi'n ere beren bertsuak erderara itzul-arazi dituzte. Aipamen aundiak artzen ari dira; eta egin duten lanak merezi du. Orañ beren eskuara xaharra, kaleak bezala berrituko balute!!



ELIZAREN ITZA

KONZILIO GAIK

Eliz Batzar Nagusiak, Batikanoko bigarrenak lau urtez ta lau ekinaldiz bukatu du bere lana. Or daude argitaratu ditun lan saioak.

4 CONSTITUZIO. Elizarena, Jainkozko siñisgaien agerkundea, ta gureganaño beroien etorbidea, Liturgi Sainduarena, ta Elizaren jokera gaurko munduan.

9 DECRETO edo Erakunde: 1.—Gizarteko artu-emanen eza-gun-bide berriak. 2.—Kristau izeneko denen bateratzea. 3.—Sor-kaldeko katolikoan Elizena. 4.—Gotzaien artzaingoa buruzpidea. 5.—Religiosoen berritze ta erakuntza. 6.—Apezgaien mintegi-ena. 7.—Erritarren eliz zabalkundea. 8.—Misio lanbidea. 9.—Apezzen lan giro ta bizmodua.

3 OARKIZUN (deklarazio). 1. Kristoren religioko ez diren-ekin Elizaren artu-emanak. 2.—Kristau ezitze ta aziera. 3.—Religioa aukeratzeko askatasuna Estaduen barrun.

Lan mamitsu, bizkorra, gora-bera ta garrantzi aundienekoa, Espiritu Santu Jankoiak eraginez burutu dana. Orain asten da gure txanda, ots, an erakutsitakoa ikasi, ausmartu, biziari, bestenez lakaripean sartutako argiaren antzekoa litzake, argi-mutillan gañean jarri bear etxeko denari argi emateko. Nafarroko erritan asiak dira saio ortan, aurtengo garizuman, erri txeari dagozkion gaiak jalkitzen; denak txaro aztertzea obe litzake, noski, ta ortarako gai dana bera ta besterentzat arazo ortan murgiltzen al da, baño orain orain bezala mintzaldi oietara joan bear degu, artaz entzun ta gero su-baztarrean etxeko guziekin atzerritu; len ere gure euskaldun oituren eskola sutondoa izandu ba da, kristau ikasbidea otoitzarekin, aintziña ere ori añaikorik alerik ez.

NEKAZARITZA ETA ABEREAK.



BASERRIAREN ALDE

Jose Franxisko, baserritar jator bat dugu. Baserrian jaiio, baserrian azi eta baserrian eskolatua. Antxe bizi da berak esaten dun bezala, beti aztarriken bere baserriko lanak ezin egiñez. Joan den asteartean feritiek etxera zatorrela bidean topo topoz egin dugu.

Atsaldeon Jainkoak Jose Franxisko — Bai zuri ere.

Aurten baserritarra ongi zerate olako egueldiekin. Santa sekulan ez duzute aurten bezelako negurik ezagutu.

Bai, gure Jainkoak amaika ematen digu. Bearrik arren eskutan gaude. Beraren bearrik baditugu. Emengoan eskutan baginaude, aspalditik erreka zuloan sartuko ginduzten.

Asarre xamar ikusten zaitut Joxe Franxisko — Xamar bakarrik, osotara ere kiskalliaziko gaituzte — Zer bada — Zer ba esaten duzu? Nabari duzu ez zerala nekazaria. Goizeko hostetan jeiki, aguardinta zurrut bat egin, ta azindien lanak egitea. Berrogei ta amar litro esne jetzi ta dozen'ardi bat zerrikume artu ia ferira. Zerri-erostunekin borroka trataon ibilli ta azkenean ogei ta amaika eskutik egiten dizute. Denak elkar artu, ta aitzeki ta maitezki ondarrean txerriak erdi prezioan saldu ta ixil ixilik burua makurtu ta etxera.

Espantu aundiak dauzkitzu — Egiak egiak. Leenago etxe bete jende biltzen giñan baserriko lanak egiteko. Gaur denak alde egiten dute bakarrik lan guziekin utzi ta. Iñork ez du baserrian egon nai. Denak kale aldera jotzen dute. Bañan baserritarra ez badu egiten, kaletarrak mutur igartu ta egon bearko dute. Gu lanerako gauza geran bitartean baserririk iraungo du, baño gure ondorengoak ez dakit andrerik ere billatuko ote duten.

Olaxekoak ziran Jose Franxiskoren kezak. Eta denok esaten duguna, onen antzekoak zori txarrez baserritarren arteko jolasak. Bañan galdetu genitzake, non dago kezka ta gertakizun oien zaña.

Agerbide bat jarriaz, bear bada obeki ikusiko dugu. Mutil gazte batek kamioi bat erosten du. Bere laneko tresna ta irabazibidea kamioa da. Zenbat eta obeki ezagutzen dun bere laneko tresna ordun da errezago, zuzenago, kezka gutxiago ta ainbat irabazi geiago. Baño baldin eta baldin ez badu ezagutzen berekin dauzke istillu gorriak, Joxe Franxiskoren antzera aztarrike, borroka, kezka, bakardadea ta irabazi txikia.

Nekazariaren laneko tresnak, lurra, landarea ta azindak dira. Zenbat eta obekiago ezagutzen dituzuan ordun eta aurrerapen geiago izango dituzu. Bear bearrezkoa da gaur nekazariarentzat bere lanetan ongi eskolatzea. Bestenez alperrik izango da. Gauz guzietarako bezala nekazalorako ere ikasi egin bear aurretik. Batek baño geiagok esango dute, aski eskolatua gaude besterik ez dugu ikusi eta ikasi jaiiezkeroko.

Era guzietako lanetan aldaketa aundiak egin dira. Denetan asko aurreratu da. Jende gutxiok lan geiago egiten da, neke gutxiagorekin, eta askoz geiago irabaziz. Nekazalorako berriz aldaketa txikiak ditugu. Aurrerapen eskasak. Lana berdintxu, ez da bear ainbat erreztu ta ugaritu. Eta ori dena bear bezala ez dalakoz nekazaria bere lanetan eskolatua.

Kezka ta negar oriek Nafarroako Diputazioari allegatu dira. Baña ere ixiltzeko ta atsegabeak atsegin bihurtzeko bideak erabaki ditu. Laister nekazari-ikastolak idikiko dira. Bost bat guxienez Nafarra guzian zabalduak jarriko ditu.

Nekazariak, bialdu zuen semeak ikastola oietara. Gaitzak zain zaretik sendatu bear dira. Eta zuentzako, nekazalorako ongi ikasitako bat laister emendixetik asiko zaizue ikas-gai eder batzuk ematen.

ERRIZ - ERRI



PAMPLONA



ALSASUA



RONCAL

EUSKAL-MEZA

Orain bi illabete baditu Iruñeko Euskalerrriaren Adiskideek Jose Sainduaren plaza ondoko Ama Karmeldarren elizan euskerazko Meza jarri zutela Iruñeko euskaldunentzako. Meza au igandero eta Jaiero (Bestaoro) ematen da. Meza oni Iruñeko euskaldun gendeak begitarte on egin dio eta eliza murrurraño betetzen da.

EUSKAL OLINPIKO-JOLASAK IRUÑEAN

Datorren udazkenean (San Permin txikiaren astean) Iruñeko Lenengo Euskalerriko Olinpiko Jolasen zeingegiogetak izango dira.

Ez dakigu ziurki Euskal-Jolasak zenbat eratakoak erabiliko diran. Zazpi gisatako euskal-jolas aritzeko erabaki dituzte esaten danez: Era guzietako Pilota-jokuak, Aizkolari-tza, Segalaritza, Arraunlaritza, Balankaritza, Arrijasotzea eta Sokatira.

Aste ederra azken Buruilekoa «Iruñshemeok» izanen duguna!

Txikiena izana da Altsasu. Batean aunditzen ari da. Zortzi bat mila arima jotzen dazkio gaur; eta ez dakigu nun geldituko den.

Lantegi —fabrika— xaharrak baditu aspaldian; alare etzen errian aurreramendu aundirik ikusten. Egunero tren bat osoa langilez beterik or joaten zen Probintzira...

Arritzeko gauza, ongi begiratu-kero. Badu lur eta ibaia badu; tren-bidea bai Madril eta bai Barzelona aldera, Frantziko bidean. Eta bideberri kontuan zer-esanik ez! Lau aizetara zabalzen dira dituenak.

Duela urte pare batetik, gauzak aldatu dira: Diputazioko joera berriak, giro berriak sortu dizkio. Asko dira, udazkeneko onyoak bezala agertzen asi diren fabrika berriak. Ez dakigu nun geldituko den Altsasu.

Euskera kontuan ere aize berriak sumatzen dira. Jende larriak bada-kite eskuara, eta gazte askok ikasi nahi dute. Lengo udan istudiante bat, eskualdun baserri batean sarturik egona da eskuara ikasten; eta bai ikasi re! Aurten beste batetik ori bera egiteko asmoa du.

Aurrera mutillak!!



Isabako alderdi baten ikusbidea.

Nonta orai, zahar utzulik, uskaraz ele-erran bear! Anitx azetu dugu, baia, guziareki, arinago egonen da mihia mintzotako, ezik eskiak egitako. Korrengatik, badakid kau kola-kala erkinen dela, eta Uruñan agertan den paper berrian ekusiren deinek, parkatu bear ekunen dei.

Konadraino xitan drenak, erdibarratruk, galte egitan dei: egiazki uskaldun zreia? Eta ñardestan dugunian kala dela Xinkoaren graziaz, zomaitek pozkario andi artan dei; beste zomaitek muturretan egoixtan dei gorengatik galdu dela kemenko uskara. Kori ezta egi guzia, eta egia zatizkatruk, gaixtoago guzurra beino.

Aurra nintzalarik, etxen eta karrigan, uskaraz oro; eskolan eta elizan, deusere. (Maixtru jeinak zume bateki xotan zien uskaraz erabiltan zionari; eta eurk ere etzien erakutsi uskaraz otoi-egitra).

Gunian, tenpra gaixto Uskaratoko; beste gisa egun kuetan! Elizaren Biltzar Nausiak manatu du Meza uskaraz emoitako, beste mintzoz bikala. Eta anitx xakitan deinek, egin nai dei uskararen alte; onki dago, baia izan deila bertan; ene ustian, Erronkaritako, berant. Aitak erraitan ziona —migotza ospinez bustirik— egia egun: astoa hil, garagarra uzkutik.

(Erronkariko "Uskaraz")



LEIZA

Garizumako garaian gaude eta Leitzarrak Pazkoz betetzeko eskubide ederra izandu dute. Iru Mixiolari jator etorri ziran Martxoaren zortzian eta aste guzian bi euskeraz eta bat erderaz jo ta erauntsi aritu dira lanean. Bai ta baztarrak ongi astindu ere. Leizako kristau zinzoak guxitan ezagutu den bezala, etorri dira Elizara misiolarien itzaldi bikañak entzutera. Erriko mutil gazteak berak egindako gurutze aundi bat, bere barrenean asmorik ederrenak idatzi ta sarturik, mendi tontor batean jarri dute. Zori-onak Mixiolariei ta batez ere leitzar guziei.

Datorren urrian Naparroako Diputazioak Leizako errian Ikastola Profesionalak idikitzen ditu. Berri pozgarria dugu auxe benetan. Eskubide bikaña gazteak bizi bide on baterako prestatzeko. Aurten 14, 15, 16 ta 17 urte betetzen dituztenak sartu ditezke. Ortarako prestateta batzuk egin bear dira aurretik. Asmoa duzutenak lenbailen galdetu, berriak nai badezute, itzez berdin eskutitez. Bereala erantzungo zaizue. Ikastol-etxea ta bizilekua egiñak daude, mutil gazte zai. Sartzeko examiñak Garagarillean izango dira. Baño Maiazaren erdirako gazteitu bear duzute sartzeko asmoa duzutenak.



NAPARROKO BIZIA

Industri gauzetan onak dira Naparroko berriak. Aurtengo udan asiko da B.M.C. Iruñen automobilak ateratzen, eta lenbiziko urtean 25.000 (ogeitabost mila) aterako dituzte. Lantegi (fabrika) berriak sortzen ari dira bai Sangüesa, Tafalla, Tudela aldean; eta bai ta ere Burunda ta Sakana aldean: Urdiain, Etxarri-Aranaz. Egües inguruan ere zerbait egiteko asmotan dira.

Nekazaritza laguntzeko lenbiziko urratsak eman dira. Berrogei bat fabrika berriren galdia ba emen da Diputazioan. Denak nekazalgoarekin ikustekoa dutenak.

Iruñetik Altsasu'rako bideberrian lan aunditan sartzeko asmoan dira. Bazen erritatik baztertu beharra! Tafalla eta, Tudela-Cortes bideak ere asko irabaziko dute.

Sakana (Barranka'ko) Ayundamenduak elkar artzen badute, laister asiko dira langile-eskolatzeko egin beharra den ikastetxeko lanak. Escuela Profesional deitzen dute erdaraz. Garai ontan iñoiz baño behar-ragoa, inguruan sortzen ari diren lantegi guziekin...

Bera Bidasoa'koan ere beste era bereko ikastetxe bat zabaltekoak dira.

Asko dira beren erriak apaintzen asiak diren Ayundamenduak; gaur izen bat aurreratu nahi dugu: Barahar (Baraibar). San Migel eta garden-etxeko bideak jende asko mugituko du eta erri polit bat ikusiko dute bidean.

San Migel gaineko ostatu berria ere bere bidez omen dioja: udaberri ontan aterako da egin-gaien azken paperra.

Diputazioak zabaldu du etxelurren gain sortuko duen zerga berriaren asmoa. Gehiegi egiten duten lurrak zerga berezi bat izango dute, eta diru orrekin etxe ta bizitegi apalak; esan nahi da, langilen etxeak egingo dira.

En Navarra continúan siendo buenas las noticias respecto a la industrialización. La BMC en Pamplona empezará a producir automóviles este mismo verano y en el primer año construirá una serie de 25.000. Nuevas industrias de importancia van a aparecer en Sangüesa, Tafalla, Tudela, Burunda (Urdiain), Barranca (Echarri-Aranaz), Valle de Egüés, etc.

Se dan los primeros pasos efectivos para desarrollar la agricultura. Más de 40 proyectos de industrias agrícolas han sido presentados a la Diputación.

Se anuncian grandes obras de carreteras entre Alsasua y Pamplona, entre Pamplona y Tafalla en las cercanías de Tudela (Tudela a Cortes principalmente).


Se espera que próximamente exista suficiente acuerdo entre los Ayuntamientos de la Barranca para empezar enseguida la construcción de una Escuela Profesional, tan beneficiosa para toda esa comarca que está en período de industrialización. También parece que en Vera de Bidasoa se creará muy próximamente otra Escuela Profesional.

Muchos Ayuntamientos navarros se ocupan de dar mayor belleza a sus pueblos resaltando entre todos el propósito del pueblo de Baraibar para embellecimiento. Baraibar va a ser muy visitado por estar abierta al público la carretera de Lecumberri al Santuario de San Miguel.

También se nos dice que el proyecto de construcción de hospedería en el Santuario de San Miguel será entregado esta primavera.

La Diputación anuncia el nuevo impuesto de plusvalía de los terrenos y anuncia asimismo disposiciones para ayuda a la construcción de vivienda. El impuesto de plusvalía de terrenos trata de que una parte de los beneficios que se obtienen en la venta de solares pase a bien de la comunidad, especialmente en la protección de viviendas modestas, protección que la Diputación reglamentará en cooperación con la política del Gobierno.

Lesaka, erri eder ta galanta



Lesakako bi etxe-aintzinalden ikuspegia.

Asi gera Naparroan herriak zar-berritzen eta etxeak azal-txuritzen. Ez dago gaizki. Beharrezkoa zen; egin zirelarik, berri ta txuri baitziren.

LESAKAK ez tu oraindik ainbesteko beharrik. Izan baitute Lesakarre, gutxi bezelako eder-sumoa, gauz ederrak ederki beiratzeko.

Mendi, muño, erreka, arboladi, aroz epel egin zuen Jainkoak Lesaka. Eta gizonak, jauregi, gaztelu, arrika trebes arrizatuak, baserri, bidegurutz, euskal-etxe arri labratuz eta zur landuz eraikiak. Xoko zoragarria. Badu Lesakak paregabe nortasun berezia. Ez da arritzekoa Lesakarrak oin "Lesakarrak" izatea.

Baño... "Baño" onek ez ote gaitu piska bat ikaratzen? Lantegi berriak yende eta bizitegi berriak dakarzki berekin. Eta yakiña: gauzak ez badira kontuz eta buruz egiten. LESAKA ittoturik, itsusturik, nortasuna galdurik biur litake.

Bukatzeko. Lesakaren edergailurik aberatsena EUSKERA DA. Euskaldun sortu ta euskaldun iraun du beti Euskeraren aldeko mistika geixago ta bizixeago bat ez ote litzake beharrezkoa orain, denboraz gaude-nean? Zoin eder eta pollit den euskera Lesakako karriketan! Zoin eder eta jaun den Lesaka, euskera mintzo duenean.



ELIZONDO

BERTSOLARI-BESTA

Euskal jolas aunitz baditugu baiñan guzien artetik bertsolaritza da euskaldun garbiarentzat yostetarik ederrena ta maitena, ortan dastatzen baitugu gure izkuntzaren lorea eta eskuaraz ezakitenak dastatu ez dezaketena. Olaxe da gure yosteta ori eta gure indar guziarekin goretzi dezagun.

Yoanden San Jose egunean Elizondoko Antxitoneko trinketean bertsolari besta eder bat izan ginuen, bereartan aritu ziren Xalbador, Uztapide, Lasarte ta Lazkao-Txiki. Euskalerriko lau bertsolari oberenetakoak.

Antxitoneko trinketea yendez bete zen eta utsik egin gabe erran dezakegu den denak atsegiñez beterik ikusi gintuela, gure bertsolarien kantaldiak denen gogokoak izan baiziren, lauak erakutsi baizituzten Yainkoak berei emanikako doaiak. Zorionak lau bertsolariei, zuek zerate gure izkuntzari indarra eta ohorea ematen diozutenak.

Bertsolari besta onek, oroitzapen eder bat utzi du baztandar bertsozale guzien biotzetan.

Gure esker beroenak entzule guzieren oiek ere erakutsi baitute eskuararenganako maitasuna.

IZETA

BASIANO



Naparroko pintorerik famatuenetik bat zen.

Erriberan jaioa, Gazte zalarik Bilbora Juan, Bilbotik Iruñera, gero Erromara bere ikasketak biribeltzeko eta Iruñera berriro bere bizi guzarako. Bere marrolanak Naparroan ez ezik Euskalerrira guzian barreatuak daude.

Minbizi batek illabete batean guregandik arestitxoan eraman du (1966'go Epailak 23'ean).

Jaungoikoak gure Basiano maita Zeru erdian aurki dezala bere Betiko atsedenean egoteko. Goyan hego!



PEDRO DE AXULAR (II)

AXULARR eta Henry IV, Frantziako erregea. LARRAMENDI-ren laudorioak

AXULARR, nafar izkiriatale ospetsuari, Sarako parrokia bere esku hartu zuenean, auzia piztu zioten Espainiako zelakoaren estakuruan. Daranatz kalonjeak kondatzen du (Curiosités du Pays Basque), joan zela gure gizona zaldiz Parisera, Henry IV garren ospe andiko errege harekin mintzatzera.

Eta Erregeak berak *Lettres de naissance* direlakoak bidali zizkion, frantzeser, auxe adi-araziz; "Nafarroako Erresumakoak nere meneko baitituz eta baitira, nai dugu eta agintzen dugu, Axularrek ukan, eta goza dezala, Sarako erretorgoa, sortzez Nafarroa-goitikoa dela, beste kontrarik ez paldin badu... Parisen. 1601 garren urtean".

Dokumentu au gordetzen da Orreagako Monasterioan.

Axularren laudoriotan mintzo diran guztiak aipatzeko ezdugu lekurik. Utziko ditugu mendiz bestaldekoen gorapenak (Yoanes d'Etcheberri, Intxauspe, Dr. Etchepare, Piarres Lafitte, Otsobi, etc) eta asi gaitzen esaten, bizi zen demborako, 1642, bere izena eta ospea aunitz edatuak zegoela; ezen bere liburuaren zensuran, Salvatus de Dissanehek dio "...Domino Pedro de Axular, viro magni nominis in nostra Cantabria, ac celebri nuper Rectori de Sara".

Larramendi idazlari trebeak, goyeneko laudorioen artean aipatzen du Axular; bere *Corografía de Guipúzcoa* liburu xarmagarrian, erakusgarri bezala Axularren zati bat dakarra. Eta bere *Iztegiaren* aitzin-solasean *Guero* liburuz Larramendik dio;

"Un tomo en 8.º del célebre Pedro de Axular. El bascuence es elegante, propio, puro, abundantísimo; el asunto tratado por principios, probados por la sagrada escritura, padres de la Iglesia. ejemplos y semejanzas muy oportunas".

"Los vicios pintados al natural y convenientísimos sus remedios. Anda en manos de muchos, y debiera en las de todos los vascongados, y ojalá hubiera dado a luz la 2.ª parte que ofrece al principio al lector. Está impreso en Burdeos año 1642". (Zuzenki, 1643 da). Andoaindarrak dionez.

GVERO liburua aunitz irakurtu zen bere denboran; Nafarroan bederik, seurki orai baino geiago; ezen badakigu etsenplario zaar bat arkitua izan zela Valle de Yerriko etxe-sabai batean. Orduan euskara agitz edatuago zegoen.

(Jarraikiko maio)

A. APAT-ECHEBARNE

Berekoetxea Españako aizkolarien txapeliduna. Astibia bigarrena



Berekoetxea, irurogeitamabi ontzako lau omborretatik baten gañean, bere trebetasun, beso-antze eta indarra apañki agertzen. Agur Mikel, Aizkolarien nagusi zeran orri!! Urte askotan txapelari eutsi!

Donostiko «Anoeta»ko zelaian, Españako aizkolarien Txapelketa egin dute. Ikusgarri au Martxoaren 6ean izan zen eta ikaragarriko yendeketa bildu zen eta erraten dutez 12.000 ikusliar bai omen ziren, ortan ageri da aizkora leiaketa oiek euskaldunen artean erreliste aundia dutela.

Erran bezala zazpi aizkolari arizanak ziren, lau gipuzkoar eta iru napartar, denak sasoiko mutillak eta denak beren indarrak ezin atxikiz. Aizkolari bakotzak 12 enbor moztu bearrak zituen, lau 72 ontzako, lau kana-erdiko ta lau 60 ontzako, denak batean asi ta nork lasterrago moztu. Gudukaldia asi orduko eta lenbiziko zarpaldiarekin batean Berekoetxea gorritiarrak aitzinaldia artu zuen eta gisa ortan amabi enborrak porrokatu artio aisa nausiturik bigarrenari bortz minutoko bentaja atera ziola.

Marka ikaragarria gorritiarrarena, ezpaizuen iñork uste lan ori 48 minuto baino lasterrago egingen zutenik. Astibia ere lan aundia egin du denak arrituak utzirik, uste-gabeko sasoiñean agertu zitzaigun eta orra or bigarren irabaztalearen ondotik. Yendeak uste zuen Errekaldek ta Polipasok geiago egingen zutela baiñan oraingoan ola gertatu da. Bertze gañerako aizkolariek ere beren almenak erakutsi dituzte. Zorionak Berekoetxea Txapelidunari. Baita bigarren gelditun den Astibia gazteari ere.

TXAPELKETA NOLA GERTATU ZEN:

Irabaztalea ta	Berekoetxea	Naparra	44-29
Txapelidun	Berekoetxea	Naparra	49-25
Bigarren	Astibia	Gipuzkoarra	50-22
Irugarren	Errekalde	Gipuzkoarra	52-53
Laugarren	Polipaso	Gipuzkoarra	53-33
Bortzgarren	Zeberio	Naparra	53-40
Seigarren	Arretxea	Gipuzkoarra	60-29
Zazpigarren	Arbeldi		

PELOTA

ESKUZKO PELOTA-JOKUAREN TXAPELKETAK

Lenen maillako zeingeiagoketa aurrera doa. Fernando Tapiak lenbiziko Naparroko Bergara garaitu zuen eta gero baita Elgea atzean utzi ere. Irugarrenean berriz Garcia Ariño bigarrenak Tapiari jokaldia irabazi zion. Lenen maillako laugarren partidua Garcia Ariño anaiak elkaren kontra jokatu zuten Garcia Ariño lenengoa garaiturik. Txapelketa onen azken aurreko partiduan Garcia Ariño lenengoa eta Atano amargarrena ariko dira bietatik bat baztertzeko. Nor izango al da igazko Txapeliduna dan Azkarateren kontra aurrez-aurre ariko dana?

Bigarren maillako txapelketaren berriak auk dira oraingoz: Amar pelotarik beren izenak eman zituzten zeingeiagoketa ontan aritzeko. Bi talde edo multzo egin zituzten bakoitzak bostna pelotari zauzkana. A deritzan multzoan Lajos, Juaristi, Bermioko Txo, Pierola II eta Andueza sartu ziran eta B mul-

tzoan berriz Bados, Galarza, Retegi, Bernedoko Txikito eta Pascual. A multzokoa garaiduna Andueza izan zan eta B multzokoa Retegi Erasungoa.

Joan daneko 3ean Donostiko «Anoeta» frontoian Retegik eta Anduezak jokatu zuten Bigarren Maillako Azken Txapelketa Nagusiaren partidua; Andueza Azkoitikoak errezi irabazi zuen txapela. Zorionak Andueza irabaztunari.

PELOTA-ELKARGOEN NORLEHENKETA

«Amateur» pelota-yokuaren norlehenketari buruzko berriak, laburki emanak, auk dira:

Gipuzkoa eta Naparroa beste urte askotan gertatzen dan bezala aurrengoak dira. Gipuzkoak Naparroak baño punto bat geiago badu oraiartean.

Federazio edo Elkargoen leiaketa ontan Naparroa, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba, Catalonia, Kastilla eta Errioja parte artzen dute.



Gizon bat eriotzean zegoen. Erri artan bazen gaxoaren ikustera joateko oitura. Andre alargun bat sartu zitzaion eta esan:

—«Gizon! Zu etzera ilko, baiño ilko bazindake...»

Etzera juango zerura, baiño juango bazindake...

Eztuzu ikusiko nere gizona, baiño ikusiko bazinuke...

Ez diozu esango baño, esango bazenioke ia aizkora txikia eta zatak nun utzi zitu.

.....

Ba emen zan behin asto bat eta otsoa atera emen zitzakon. Laster astoak eta, otsoak laster, eliz ondo batera etorri izan behar zuten.

Astoak eskatzen dio meza entzuterara sartzeko baimena; eta otsoak eman.

Astoa elizan sartzean bi ostikoz ataria etsi emen zuen; eta bestea an kanpoan espera. Berantetsi ta oi u egiten dio, zer meza luze zen ura!

Egoteko gustora, etzela meza erdira ere eldua. Orduan konturatu zen otsoa astoaren jokoaz. Eta esan zion:

ORREAGA (Roncesvalles)

Mendeak zear, Naparroako bizitzan gertatu diran gora-berak, txoko ontan agertzen saiatzeko itza eman gendun. Aste-oroko onen izena andik artua eta Naparroko lekurik zarrenetako dalakotz, Orreagari begiraldi bat eman dezaigun gaur.

Naparro zarrean, Orreagako txoko orrek aibat soñu ateratako leku gutxi izango dira noski. Naparroan ez-erik, Kristau-erri osoan ere ezaguna zan bere izena garai batean.

Konpostela aldera zijoazten Erromesak (peregrinos), gaizkilleen eskuetatik gordetzeko aitzaki-maitzaki zetorren Erroldan arroari, or lur joazi zioten Euskaldunak. Istori-zaleak diotenez, garai artan kristau-erri oso-osoan ain aipatua zan Orreagako Erromes-etxea, Erroldan bialdu zuan Karlomagno errege aipatuak egiña omen zan. Erromes-etxe orrek garai artan zer-nolako izena zeukan esan bearrrik ez dago. An egoten ziran Erromesak, angorrrera onaz eta kristau maitasunaz

itzegiten ez omen ziran aspertzen. Nekatua zetorrenarentzat oatze biguña, gose zegorenarentzat jan goxo eta indartsuak eta gaizki irixten ziranarentzat laguntza berexiak ez omen ziran palta an.

Erromes-etxe onen buru, erdi-pralle ta erdi-soldadu ziran gizon batzuek zeuden. Praille otoizlariak pake garaian baño soldadu bizkorrrak premian arkitzen ziran. Ez-pata eta Gurutzea elkartuta. Orreaga armarrarian agertzen diran bezala. Batikanoko Eliz-batzar garaian ezin elkartu ditezken bi irudiak, maiz elkartu oi ziran kristau artean orduan. Garai bakoitzeko kristauak era batera edo bestera ikusten baitute kristau jokaera.

Kristau-erri osoan ezagutua eta maitatua zalakotz Orreagako Erromes-etxea, errege eta aundizkiak, erregaloak egiten etziran aspertzen. Europa guzia barna lurralde eta basoak ba omen zituan. Orreagako Andre Mariventzat zenbaterainoko Eliz-ontzi ta txirla-erri pillak utzi zituzten esan ere ez liteke. Orreaganako maitasuna kristaudi luze-zabalean zabalduta zegoen.

Aita Santuek berek, Agustin Santuaren erregla jarraitzen zuten pralleei eskubide aundiak eman eta omenaldi aundiak egin zizkieten.

Naparro zarreko jai-aldi nagusietan, Orreagako pralleen Buru egiten zuanak aurreneneko lekue-tan exeritzeko eskubidea ba-zuan. Orreagako Andre Mariaren Eliz ederra Naparroako Santxo "Bizkorra" deitzen zuten erregeak egiña omen da.

Maitatu eta ezagutu dezagun guk ere, gure-gurea dugun Orreaga.

AUÑAMENDI

Astozarra mukizu sobera berri dakizu; nik berriz bde ontian arrapatzen bide ontan bazituz Mezarik entzunen ez duzu.

Astoak erantzuna:

Mendi gainean duk artaldea zakurrik ere ez dik; hire afaritako axuri pare bat ba-ditik.

Eta otsoak kanpotik:

Zanguan diat arantze ezin finka bainaike; ba dutalarik ementxe zertarat juanen niz araxe?

ARRUIZKO TXIKITOA TA ARBELDI

Ikusia dago gure Arruizko Txikito zenbatenez zaharrago ta bizkorrago dabillea. Ori dela bi illabete gipuzkoar Arbeldirekin apostu bat egin zuen aizkorian eta lasterka eta orduan galdu zuen, baiñan arruiztarrak ezta amor eman nai eta berriz ere Arbeldirekin zein-geiagoka ari bearra da eta oraingoan lan aundiagokoa. Bakotxaren eginkizuna auxe da:

Lehenik amar 45 ontzako enbor

moztu eta ondotik amar kilometro lasterka, biek batean asi ta zeñek lan guzia lasterrago egin. Apostu untan 50.000 pezeta yokatzen dituzte eta Tolosako plazan ari bearrak. Lan izigarria dute eta yosteta ori ezta preziski yende beratzen-dako, aski zailduarendako baizik. Alafedel gizon bizkorrrak badirela gure Euskalerrrian. Nor garai? Yainkoak lagun Apirillaren 17an yakinen dugu.

"PRINCIPE DE VIANA" admite y agradecerá colaboración de todos los navarros que se interesen por el vascuence. Los originales pueden ser bilingües. Cualquier tema actual o retrospectivo puede ser interesante. Expresamos de antemano nuestra gratitud a los futuros colaboradores.

Si desea recibir en su casa esta publicación, exclusivamente dentro de Navarra, envíe este Boletín a: INSTITUCION PRINCIPE DE VIANA. Calle Ansoleaga, 10. PAMPLONA.

BOLETIN DE INSCRIPCION

Don

con domicilio en la localidad de

Calle N.º

desea recibir a domicilio y gratuitamente el Suplemento «PRINCIPE DE VIANA».